

GOIURI, ARAZO BAT DUGU!

Idoia Garzes

Leku zuria da, paretak bigunak. Espazio-ontzi batean gaude. Audio ezberdinak entzuten dira, radarrak, konputagailuak datuak jasotzen, maiztasun ezberdina duten txistu ezberdinak.

*Kapitaina mahai baten aurrean dago eserita, idazten.
(Irazu kapitaina idazten ari da pentsakor)*

KAPITAINA

...Jarraitzen dugu esperoan. Misio honen garrantziaz ohartuta, ezin baitugu egonarrria galdu. Ezin dugu, baina, bihotza uzkuratzen digun min hau gainetik kendu ere. Zertarako ezkutatu? Zergatik uka? Zer paradoxa handia eta minbera, eskuekin ukitzen duguna, ezin atxiki dezakegunean...

(Ezer hartu nahi, eta eskuarekin airea baino atxikitzen ez duelako keinua eginez)

LOTINANTA

Kapitaina, kapitaina...

KAPITAINA *(Esku-keinuaz isilarazten du)*

Zaude...

Baina aberriaren loriaren aldean zer da, bada, norbanako biren desosegu, ezinegon eta malurra? Huskeria bat.

Gure egitekoa betetzen ari garelako urguilua eta ondra ez digu inortxok kenduko hala ere, eta trukean gure herriak nazioarteko kontzertuan merezi duen aintza eta ospea erdiesten baditu, zorionekuak gu!

(Azken pasarte hau, batera, bigarrenak ahapeka, ikasia du, egunero berdin amaitzen baitu bitakora kapitainak)

LOTINANTA

Kapitaina...

KAPITAINA *(Eskua altxatuz isilarazten du)*

Hemen, espazioaren luze-zabalaren erdian, misioaren 987. egunean, Aro Berriko 27. urteko ekainaren 23arekin, agurtzen da "Pitxu XIV" ontziko Irazu kapitain-pilotu argizaginata.

(Kaiera gordetzen du, bestea inpaziente ezin geldirik egon)

LOTINANTA

Kapitaina, kapitaina...

KAPITAINA

Zaude, Iriarte.

LOTINANTA

Baina kapitaina...

KAPITAINA

Egonarria, Iriarte lotinanta, egonarria.

Pazientzia.

Horrek itxoin dezake. Zatoz, zatoz leihora!

(Leiho ondora doaz biak, idi-begira)

KAPITAINA

Zein eder eta zaurkor ageri den.

LOTINANTA *(Pixka bat aspertua, egunero gauza bera)*

Bai, kapitaina.

KAPITAINA

Ezerez beltzean eskegitako puxtarri urdinkara txikia. *(Biak batera, lotinantak ere, baina kapitainak ez entzuteko moduan)*

LOTINANTA *(Aspertua)*

Bai, kapitaina

KAPITAINA

Eta urdinaren erdian, gure antzean, jitoan eta bera baino gehiago diren indarren menera, hain txipi, hain ñimiño, eta... hain maitea: gure Euskal Herria. Gure kaia eta estalpea, gure itsasargi, gure zeruko izar eta eguzkia... *(Paragrafo hau ere biak batera, baina lotinantak baxu, kapitainak ez entzuteko moduan)*

KAPITAINA

E?

LOTINANTA *(Disimuluz)*

Gaur lainoak estalia dagoela dirudiela.

KAPITAINA *(Hasperen luzea eginda)*

Berdin da, bihotzak ez du begien beharrik maite duen hori ikusteko.

(Kuadratu egiten da, eta eskua Irulegin topatutako Sorioneku gisa jartzen)

Agur eta ohore! Zorionekoak gu!

LOTINANTA *(Keinu bera errepikatuz, ez hain harro)*

Zorionekoak bai!

KAPITAINA

Tira, zer da hainbeste presa duen hori?

LOTINANTA

Zer?

KAPITAINA

Nola, zer? Nire jarduna eten eta orain ez dakizu zer dela eta eten duzun?

LOTINANTA *(Emozionatuta)*

Egia. A ze burua nirea!

**Kapitaina, kapitaina, mezu bat jaso dugu.
Hainbeste denboran espero izan dugun mezua jaso dugu.**

KAPITAINA (*Emozionatuta baita ere*)

Zer diozu? Mezu bat?

Goiuriko kuartel orokorretik? Bueltan nahi gaituzte?

Zergatik ez naute lehenago informatu?

(*Bistan da, lotinantari ez baitio utzi*)

Zer dio? Zer diote gure herrikide maiteek?

LOTINANTA

Ez, kapitaina. Mezua ez dute handik bidali.

KAPITAINA

Nondik bada: Ajuria Eneko bulego biribiletik zuzenean akaso?

LOTINANTA (*Ezezko keinuak eginez*)

Ez, ez.

KAPITAINA

Abaurregainako subestaziotik?

LOTINANTA (*Ezezko keinuak eginez*)

Hotz, hotz.

KAPITAINA

Nondik orduan?

LOTINANTA

Espaziotik.

KAPITAINA

Espaziotik?

LOTINANTA

Espaziotik.

KAPITAINA

Ze espazio?

LOTINANTA (*Eskuak eta besoak ingurua seinalatuz*)

Espazioa.

KAPITAINA (*Eskuak eta besoak ingurua seinalatuz*)

Espazioa?

LOTINANTA

Bai, espazioa.

KAPITAINA

Espazio honetatik.

LOTINANTA

Ba bai.

Besterik baldin badago, ba akaso bihar jasoko dugu bertako mezuren bat!

KAPITAINA

Ez da posible! Halakorik baliteke?

Espaziotik?!

LOTINANTA

Nondik bada? Horren esperoan geunden, ezta?

KAPITAINA

Tira.

LOTINANTA

Ez al da horixe gure misioaren xede gorena? Bestelako bizitza batekin topo eginda, Euskal Herria gizadiaren aitzindari eta bide erakusle bihurtzea, mundu eta planeta eta zibilizazio berriak deskubritzeko lantegian.

(keinua eginaz) Zorionekoak gu!

KAPITAINA *(Keinua bakarrik, zorionekoak esan gabe)*

Tira, teorian, bai. Baina...

LOTINANTA

Munduko agentzia espazial guztiak atzean eta barregarri uzteko ezin galduzko aukera dugu, ezta?

KAPITAINA

Tira, munduko agentzia espazial guztien aurrean barregarri gelditzeko aukera galtzen badugu ere gaizki ez!

Ez ahaztu, denak irrikatan daudela gure laprastadaren zain. Nekez ameti baitezakete izarretako hil edo biziko lasterketa honetan Euskal Herria, tropeletik eskapu egin eta, tête de la course bihurtu izana!

LOTINANTA

NASako inbidioso zikinak!

KAPITAINA

Tira, gure artean ere badira bekaitzak itsututako sugedorriak ere, Iriarte. Guk ere bizkarrak ondo babestu behar ditugu ezer esan aurretik.

Guztien irri-bazka bihur gintezke-eta kukuak gaizki jotzen badigu, eta barregarri eta ipurdi-bistan gelditu denen aurrean!

Badakizu, tximinoa zenbat eta gorago...

LOTINANTA *(isilik, ez baitu esaera ezagutzen)*

Eeeee... Ba... platanoak eskuragarriago, akaso!

KAPITAINA

...orduan eta uzkia ageriago!

LOTINANTA *(Harrapatu ostean, ipurdia eskuaz estaltzen du)*

Ene, eta gu nahikoa gora gaude, ezta?

(Leihotik begira jarri, eta txistu egiten dute batera)

KAPITAINA

Milaka kilometro pare batzuk bai.

LOTINANTA

Baina gu ez gara tximinoak!

KAPITAINA

Bistan da.

LOTINANTA

Gu tximinoen ondorengoak gara!

KAPITAINA *(Eskuaz burua jo, honek ez du erremediorik pentsatuz bezala)*

Tira.

LOTINANTA

Eta arropa darabilgu, gainera! Zorionekoak...

KAPITAINA

Nahikoa da hainbeste zorionekin!

Zer dakigu mezuaz?

LOTINANTA

Orain arte ezagutu gabeko galaxia batetik iritsitako mezua dela, oso-oso urrutitik bidalitakoa.

KAPITAINA

Gehiago.

LOTINANTA *(Hatz erakuslea gorantz seinalatuz)*

Orore lanean ari da.

KAPITAINA *(Hatz erakuslea ezpainetara eramanez)*

Shhhh, entzungo zaitu.

LOTINANTA

Lasai, buru-belarri ari da, kontzentratuta. Tira txip-logaritmo, herio batean!

Berarentzat ere marka baita holako deskubrimendu baten parte izatea.

Pentsa, kapitaina, hauxe da Euskal Herrira heroien pare bueltatzeko dugun aukera paregabea. Buruzut gainera, derrigorrezko deserri eta agindutako bijilia-estelar hau atzean utzita!

KAPITAINA

Gu al gara lehenak? Mugimendurik sumatu al da beste agentzien artean?

(Ahapeka eta behatz erakuslearekin gora seinalatuz)

Zer dio hark...?

LOTINANTA

Ororok?

KAPITAINA *(Hatz erakuslea ezpainetara eramanez)*
Ssssssssh...

ORORO *(Espaziontziko ordenagailua da, ahots metalikoa)*
(Orororen ahotsa hemen Offa da, baina eszenan agertzen den pertsonaia izan daiteke, robota)
Entzun dizut.

LOTINANTA *(Harrituta bezala, baina retintin-arekin)*
Hor al zinen?

ORORO
Eta nire izena Orotariko Noranahikoa 11.0 da.

LOTINANTA *(Ahapeka)*
Hutsaren hurrengo Listopasatua hobeto badatorkio ere!

ORORO
Hori ere entzun dut.

KAPITAINA
Izan dezagun bake pixka bat.
(Gorantz begira, sabaira)
Zer diozu Ororo...tariko. Zer dio mezuak?

ORORO
Irazu kapitain pilotu argizaginata, hobe izango da zuk zeure belarriz entzutea.

KAPITAINA
Jartzazu.

ORORO
Ez, ez. Hobe zuk bakarrik entzutea.

LOTINANTA *(Rencoroso antzera)*
Nik ere entzun nahi dut!

(Kapitainak kaskoak ipintzen eta ezin sinistuzko aurpegia ipintzen. Alboan ume kasketadunaren antzera lotinanta, entzun nahian)
(Kapitainak eskukadaz haserre kaskoak kentzen, lurretik hartzen lotinantak)

KAPITAINA
Broma da, ezta?

LOTINANTA
Zer dio, zer dio?

KAPITAINA
Zer egun da gaur? Abenduaren 28a, apirilaren lehena?

LOTINANTA

2057. urteko ekainaren 23a.

ORORO

Errorea!

LOTINANTA

(Ukabila airean astintzen du erretxinduta, kapitainaren aurrean gaizki gelditu baita)

Aro Berriko 27. urteko ekainaren 23a.

KAPITAINA

Ez dela inuxente eguna, karajo! Lurretik bidalitako proba izan daiteke, simulakro bat, adi ote gauden baieztatzeko edo?

ORORO

Ez, kapitaina. Gorbeia, Orhi eta Moncayoko estazioek osatutako triangulazioa isilik da.

LOTINANTA

Baina zer dio mezuak?

ORORO

Gizadiaren aurkikuntzarik garrantzitsuena izan daiteke.

KAPITAINA

Edo hanka sartzerik handiena. Eta antzina ez dela izan ditugu baten batzuk!

ORORO

Ni ez bainintzen tartean.

KAPITAINA

Beno, beno.

LOTINANTA

Baina zer dio mezuak?

KAPITAINA

Ipin iezaiozu. Baina kaskoetan, sator kosmikoak ere badira-eta badirenez!
(Lotinantari zuzenduta) Eta Iriarte, ez ahaztu monitorizatuta eta obserbazioan ere bagaudela, kontuz zer espantu eta aiko-maiko egiten dituzun!

(Iriartek kaskoak ipintzen eta mezua entzun ahala, espantuka, eskuei eragin eta, kapitainak ahoa isteko keinua egiten dioenean,eskuekin ahoa tapatzen du)

LOTINANTA

Joder!

Dedio!

Ama maitea!

Jainko pottolo!

Baina, baina nola liteke!

KAPITAINA

Itxoin!

Sssssssshhhhh! (*Isiltzeko keinua egiten dio lotinantari*)

(*Kapitainak etengailu bat sakatu eta halako presio edo dena delako soinua entzuten, dena den beste soinuek, makina hotsek jarraitzen dute*).

Deskonektatuta gaude.

Baina badaezpada ere, jantzi eskafandra, Iriarte!

(*Kapitainak eskafandra eskaintzen. Halako salbamenduzko manta termikoa balute primeran, harekin beren burua estali eta kanpin denda modukoa egiteko*)

(*Eskafandra janzen dute, hemendik aurrera haien ahotsa pittin bat metalikoagoa entzungo*)

LOTINANTA

Baina ez al gaude deskonektatuta?

KAPITAINA

Bai, baina badaezpada ere. Horrela hitz egin dezakegu lasai.

LOTINANTA

Bai, listopasatu horri susmo txarra hartzen diot.

ORORO

Entzuten ari naiz!

KAPITAINA

Orotariko ekipokoa da, Iriarte!

(*Lotinantak haserre keinua*)

ORORO

Kar-kar-kar (*Irri-karkaila*)

KAPITAINA

Zer diozu?

LOTINANTA

Joder! Dedio! Ama maitea! Jainko pottolo! Zer esango dut-ba?

KAPITAINA

Orororekin ari naiz!

ORORO

Kar-kar-kar (*Irri-karkaila*)

KAPITAINA

Zer diozu?

ORORO

Espazio urrunetik iritsitako mezua da, seinalea ahula da eta urruneko galaxia batetik, guretzat eta ezaguna dugun mundu guztiarentzar ezezaguna den galaxiatik, bidalitako mezua izan daiteke, bai.

KAPITAINA *(Isilunea)*

Euskaraz.

ORORO

Bai, euskaraz.

KAPITAINA

Euskara jatorrean, gainera.

ORORO

Jatorraskua!

KAPITAINA

Tira, zubereraz bidali izan balute sinesgarriagoa litzateke!

LOTINANTA

Ja, baina hala bidali izan balute ez genuke ulertuko.

ORORO

Zuk ez noski.

Zük, malerüski ez düzü deusere endelgatzen!

LOTINANTA

Egunen batean deskonektatuko zaitut.

ORORO

Dolü gabe, dolü gabe hiltzen niz...

KAPITAINA

Nahikoa da.

Zer diote zure kontaktuek?

ORORO

Adarrik ez jotzeko!

KAPITAINA

Ustel horiek!

ORORO

Oilo busti hutsak dira! NASAko ordenagailuak ez entzunarena egiten ari dira.

KAPITAINA

Txinoak?

ORORO

Horiek gorrarena!

KAPITAINA

Eta suediarren adimen artifiziala?

ORORO

Suediarrarena egiten!

KAPITAINA

Eta zuk? Zer diozu zuk?

(Une oro lotinanta keinuka, eskua altxata, hitz egin nahi duela)

LOTINANTA

Kapitaina...

ORORO

Mezua urrutiko galaxia batetik bidalia dela.

LOTINANTA

Kapitaina, akaso...

KAPITAINA

Hori esan duzu. Baina, bestea?

Euskararena? Nola liteke?

LOTINANTA

Kapitaina...

ORORO

Nire zirkuituak herio batean dira, gainezkatuta daude une honetan!

LOTINANTA

Tira...

KAPITAINA

Zer Iriarte?

LOTINANTA

Beno, orain arte inortxok ez du argitu gure hizkuntzaren jatorria, eta zenbait adituren ustez... um... nola esan... ba, nola jatorri estralurtarra ezin den baztertu, ba, akaso, euskaldun zaharrek euskaldun berriokin harremanetan jarri nahi dute.

KAPITAINA

Mesedez, Iriarte, ez gaude txorakerietarako. Munduko agentzia espazial guztiak gure laprastadaren zain daude!

LOTINANTA

Tira, bada beste azalpenik!

ORORO

Arrazoizkoagoa, seguru!

LOTINANTA

Duela hamar urte denboraren kapsula bat bidali genuen espaziora, Jalgi Hadi 7 zundan.

KAPITAINA

Eta?

LOTINANTA

Hainbat gauzarekin batera euskara ikasteko metodo bat ere bidali genuela espaziora.

KAPITAINA

Zunda hori galdu egin zitzaigun, ezta?

ORORO (*ironiaz*)

Harritzekoa!

KAPITAINA

Ororoooo, broma gutxi horrekin!

Eta nola liteke, hamar urte besterik ez badu bidaiatu, mezu hori ezagun ez dugun galaxia urruti batera iritsi izana, NASAkoek ere ez dute-eta horrelako teknologiarik?

LOTINANTA

Espazio-denbora zurrumbilo batean sartu izan balitz...

KAPITAINA

Zirimolatzar batean sartuta ere, teoria hori ez dago demostratuta, espekulazio merkea besterik ez da!

LOTINANTA

Ez nago ados, kapitaina. Hainbat euskaltzainek balezkotzat duten teoria da.

ORORO

Hara, euskaldunon jatorri alienigenaren ipuina ontzat ematen duen beste iluminAITOR BAT!

LOTINANTA

Aizu, euskaltzain horiek merezi dute errespetu pixka bat.

ORORO

Euskaltzaindik bidalitako lau zoro horiek?

KAPITAINA

Tira, Iriarte, Kaukasoko lotura eta Saharako bereberrena...

LOTINANTA

Amazinak!

KAPITAINA

...amazonena baztertu ostean, mitologia klasikoko Atlantida eta Bibliako Tubal aipatzen dituzten lau hizkuntzalari xeble bano ez dira.

LOTINANTA

Filologoak dira!

KAPITAINA

(*Kopetan kolpea bere eskuz, hau ez enteratzen bezalako keinua eginez*)

ORORO

(Irri-karkailea) **Adimen naturala!**

LOTINANTA *(Oso digno)*

Filologoak dira.

ORORO

Gauza bera dira, inuxente!

LOTINANTA

Badakit!

KAPITAINA

Ados, demagun Jalgi Hadi 7 zundak...

ORORO *(Eztula)*

Jalgi Hadi 27 zen.

KAPITAINA

... Jalgi Hadi *(isilunea)* zundak eguzki-urteak barraskiloen pare uzten dituen espazio-denbora zurrumbiloa hartu eta galaxia urruti horretara iritsi zela. Horrek ez du azaltzen, ordea, mezua bidali duenak hain euskara jatorra hain denbora laburrean ikasi izana, horretarako astia eta pazientzia handia behar baitira.

ORORO

Espazio-denbora zurrumbilo batean sartuko zen!

KAPITAINA

Kontuz, Ororo. Horrelako beste purrustada bat eta Mateo Txistu basera bidaliko zaitut, ilargiaren alde ezkutuko harriak klasifikatzera!

ORORO

Batek daki, akaso ostrakak daude!

KAPITAINA

Oro...

ORORO

Glups!

LOTINANTA

Izorrai!

KAPITAINA

Iriarte, zu berarekin joan zintezke!

LOTINANTA

Tira, agian inteligentzia goren baten aurrean gaude.

ORORO

Eskerrik asko!

LOTINANTA
Ez nintzen zutaz ari!

KAPITAINA
Benoa, benoa... euskara zaila delako mito hori aspaldi eraitsi zen. Baina horrek ez du esan nahi ikasteko denbora behar ez denik. Eta mintzapraktika, jakina!

LOTINANTA
Eta arrazoi balute?

KAPITAINA
Euskara zaila dela diotenek?

LOTINANTA
Ez, Euskaltzainditik bidalitakoek.

KAPITAINA
Nola izango dute arrazoi. Frogak behar dira, frogak.

LOTINANTA
Zer da, bada, jaso dugun mezua!

(Kapitainak eskafandra kendu du, saltoka hasten da, grabitaterik ez dagoela simulatzen. Ahoa ere zabaltzen, arrainek bezala, oxigeno falta balu bezala)

LOTINANTA
Kapitaina, kapitaina, zer egiten duzu? Jantzi berriro eskafandra itoko zara bestela!
(aztoratuta).
Ororo, Ororo arazo bat dugu!
Kapitaina, kapitaina, jantzi eskafandra...

KAPITAINA *(Eztultxo eginez, dena normal egongo balitz bezala)*
Ororo, despresurizazio arazoak ditugu, ala? Alarma ez dabil, ala? Ez dut entzun!

ORORO
Ez, kapitaina. Kontrakoa dirudien arren airearen oxigeno maila normala da eta grabitatearen indarra berriz 9,8 metro segundo karratuko. Lotinantaren herrena berezkoa da.

LOTINANTA
Jo, beldurtu egin nauzu, kapitaina.

KAPITAINA *(bere ahotsa normal entzuten da)*
Beldurtu?
Zoratu zara, ala? Nola pentsa dezakezu mezuaren egiazkotasunean?

LOTINANTA *(eskafandra oraindik jantzita, ahots metalikoa du oraindik)*
Tira, kapitaina... nik Euskaltzaindik horiek arazoia izan dezaketela baino ez dut esan.

KAPITAINA
Kendu eskafandra, Iriarte. Badirudi zure buru-herrena jaiotzekoa dela!

ORORO

Kar, kar, kar...

LOTINANTA (*ahots normala*)

Niri ez dit graziarik egiten.

KAPITAINA

Baina, nola liteke?

Ez du hankarik ez bururik!

ORORO

Tira, duela gutxirarte inork gutxik esango luke euskaldunok izarretako lasterketako championsean jokatuko genukeenik!

KAPITAINA

Baina hau... hau markaz fuerakoa da!

Laika txakurra, Juri Gagarin, Valentina Terexkova, “urrats txikia da gizon batentzat, baina jauzi handia gizateriarentzat” gidoilari batek baino ezin asma dezakeen esaldi pelikuleroa.

ORORO

Europarrak, txinatarrak, India, Mozambique, eta beste ehun bat herrialderen ostean, Euskal Herria.

LOTINANTA (*Harro, Euskal Herriaren izar-lasterketa kontatzen*)

Pintto, Txuriko, Bambulo, Xola eta Beltxa txakurrak.

ORORO

Eta lehenago euli lapurtar bi eta zazpi armiarma ziberutar.

KAPITAINA

Getari sagua eta Pitxitxi katua.

ORORO

Getari gaxua.

LOTINANTA

Eta tximinorik ezean, igelak, ahuntzak eta pottokak!

ORORO

Tolosako babarrun, Gernikako piper, Arabako patata, Milagroko gerezi eta Irulegiko mahatsondo kultiboak.

KAPITAINA

Orbitatzen guztiak, zabor kosmiko bihurtuta oraindik alderrai behar duen Iparragirre satelitearekin batera...

LOTINANTA

Mari suziria.

KAPITAINA

**Odola zainetan gatzatu zigun “Goiuri, Goiuri, arazo bat dugu” gogoangarri hura.
Gure argizaginatutak betirako galduko zirelakoan...**

ORORO

Oraindik zezelka besterik egiten ez zuten nire asaba zaharrei eskerrak, arazoa soluzionatu eta Euskal Herrira heroien pare itzuli ahal izan zirenak.

LOTINANTA

Tartalo teleskopioa. Hasieran miopia zuena,

OROTARIKO

Baina nire aurrekari ere bazen Martin txiki robotak operatuta, belatzen pare dakusana espazio infinitutik haruntza!

LOTINANTA (*Erretxinduta*)

Ña, ña, ña...

KAPITAINA

Abiatu eta berehala zeruan eztanda egin zuen Erronkari transbordadorea.

LOTINANTA (*Eskua goruntz, Sorionekuren kontra*)

Zoritxarrekoak haiek!

KAPITAINA

Tortolika anezka.

LOTINANTEA

Txirri, Mirri eta Txiribiton espedizioak!

KAPITAINA

Mateo txistu, Euskal Herriak Ilargian ipinitako lehenengo basea.

ORORO

Eta ondorengo Martitzeko, Saturnoko eta Plutongo...

LOTINANTA

Donemiliaga Kukula, Veleia eta Irulegi baseak.

KAPITAINA

Esne Bidetik ateratako espedizioak!

LOTINANTA

**Eta gu, Pitxu XIV espaziontziko eskifaia! Baleazale moderno batzuen gisan!
Espazioan jitoan, nola zabor kosmikoa, asteroideak eta meteoritoak driblatzen.
Euskal Herriaren loria ipar bakar.**

KAPITAINA

Bai, hasierak zailak izan baziren ere, orain euskaldunok txapelketa nagusia jokatzen ari gara; batzuetan elkar harturik NASArekin eta beste agentziekin, eta beste askotan bekoz beko. Azkenputzak ez baitu sekula loriarik jasotzen, ezta Historiako aipamenik ere; eta munduan nor izateko, klub hautatu horretako kide izateko, gogor ari da lanean EAE, gure Euskal Agentzia Espaziala.

LOTINANTA (*Buruan hazka egiten ari dela*)

Tira, bejondeigula! Baina gure espazio-ontzia zergatik deitzen da Pitxu?

KAPITAINA (*Harro*)

Gure Pitxu, Fenixaren parekoa delako.

LOTINANTA

Hara, gure osaba Felix bezala!

ORORO

Adimen naturala!

KAPITAINA

FENIX, ez Felix!

LOTINANTA

Felix izen politaskoa da-ba.

KAPITAINA

Fenix hegazti mitologiko bat zen, bere errautsetatik berpizten zen hegazti miragarria.

ORORO

Kri-kri-kri.

LOTINANTA

Berezia bai, hegazti horren txorrotxia!

KAPITAINA

Fenixak bere errautsetatik birsortzeko zuen gaitasunak hilezkor egiten zuen.

ORORO

Kri-kri-kri.

KAPITAINA

Alegoria bat da.

ORORO

Kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri-kri... (*gero eta azkarrago*)

KAPITAINA

Pitxuk, EAEn, Euskal Agentzia Espazialaren arima ordezkutzen du. Euskaldunon izaera menderaezina. Erorikoen ostean zutitu eta berriz erorita ere altxatzen dena amorerik eman gabe, etsi gabe bere xedea lortu arte.

ORORO

Esan dezagun hobeto, euskaldunon egoskorkeria, seta eta burugogorkeriaren irudi dela.

KAPITAINA

Tira, tira.

ORORO

Hemen esan beharko genuke, Jalgi Hadi 27 zunda, berez Jalgi Hadi 54 izan zela.

KAPITAINA

Bueno....

ORORO

Eta haren aurretik 17 Sautrela zundek Bardeetako basetik jalgi eta berehala eztanda egin zutela.

KAPITAINA

Den-dena esateko nezesidaderik ez dago.

ORORO

Lotinantari alegoria zer den azaldu nahian nenbilen.

LOTINANTA

Baina Pitxu nor da?

KAPITAINA

Gure Fenixa.

ORORO (*Mantxoago*)

Kri-kri.

KAPITAINA

Pitxu ere behin eta berriro hiltzen eta berpizten da, hats berrituta.

ORORO

Ja-ja. Hauspoari eraginda esan nahiko duzu!

LOTINANTA

Pitxu ere errautsak hauspotuz berpizten da?

KAPITAINA

Tira, errauts artean itzaltzear dauden txingarrei haize eginez...

ORORO

Esateko beste era bat da!

KAPITAINA

Dena esateko nezesidaderik ez dago.

LOTINANTA

Hauspoarekin?

ORORO

Gorantz egiten zuen tximinoaren txulotxoaz gogoratzen zara?

LOTINANTA

Popa bistan zebilena?

KAPITAINA
Nahikoa da!

ORORO
Hou Pitxi hou! Nekez topatuko duzu EAeri erreferentzia egiten dion izen loriatsuagorik!

(Kapitaina leihora doa, pentsakor)

KAPITAINA
Leihora gerturatu eta berdin, dena beltz ikusten dut. Zer egin?

LOTINANTA
Kapitaina. Zuk erabakitako edozer gauza geure egingo dugu.

KAPITAINA
Begira izar-uxoak. Ihes betean zeru beltz oskarbia ziztu bizian zeharkatzen. Haien lorratza.
Edo kometa bidaiariak, une honetan, haien isats gainean joan nahi nuke, mundu berriak ezagutzera.
Txikitan izarrei begira egoten nintzen maiz.

LOTINANTA
Ni ere bai. Eta kaskarreko latzak jasotzen nituen, izarrei begira egotea kolpe zorrik ez jotzearen seinale baitzen gure etxean.

KAPITAINA
Erromantiko hutsak ginen, ez gintuzten ulertzen.

ORORO
Beti sinetsi nahi izan dut kanta haren hitzetan, izarren hautsa egun batean bilakatu zela bizigai eta hauts hartatik uste gabeen ginela gu ernai.

LOTINANTA
Ez zazula esan. Zuk ere bai? Oso antzekoak gara, Ororo... tariko.

KAPITAINA
Baina orain, izugarrizko bertigoa sentitzen dut. Amildegiaeren ertzean banengo bezala, indar ezkutu bati ezin aurre eginez, eta hark erakarrita.

LOTINANTA
Zulo beltz baten ondoan bezala.

ORORO
Materia eta baita argia ere bere baitara erakartzeko eta bertatik ez irteten uzteko adinako eremu grabitatorioa sortzen duen dentsitate handiko zulo beltzaren ondoan.

LOTINANTA
Unibertsoaren uzkia!

ORORO

Tira! Horrela esanda...

KAPITAINA (*Irribarrez*)

Alua mundua!

ORORO

Beste esateko era bat da, bai!

KAPITAINA

Eta dena kiribil bat balitz? Behin eta berriro errepikatzen dena? Ez hasiera ez amaierarik gabea. Orain kanpoa eta orain barrua duena. Jira eta bira dabilena, orbita batean bezala.

LOTINANTA (*Ahopeka, Ororori galdetuz*)

Zer da, beste alegoria bat?

ORORO

Paradoxa bat.

LOTINANTA

Kri-kri-kri!

ORORO

Schödingerren katua ezagutzen duzu?

LOTINANTA

Kri-Kri-Kri.

ORORO

Zer erakusten dizuete Bardeetan?

LOTINANTA

Zentrifugagailuko probak albo-kalte batzuk eragin zizkidan.

ORORO

Superposizio bat da. Hitz gutxitan, Schödingerren katua bizirik eta hilda dago aldi berean. Mekanika kuantikoa da.

LOTINANTA

Utzi, utzi. Nahiago dut gure Pitxitxi argizaginata!

(Orain arte leihoan izan da kapitaina, aparte, bere pentsaketetan)

KAPITAINA

Iriarte, ordua da.

Emadazu galazko uniformeak, hitz egitera noa.

LOTINANTA

Kapitaina...

KAPITAINA

Beste hark esan zuen bezala, euskararen historiak ezkututzen duen benetako misterioa ez da bere jatorria, iraupena baizik.

LOTINANTA

Izarretako euskaldun zaharrekin komunikatuko gara?

KAPITAINA

Euskal Herriko euskaldunberriekin!

Ororo,,,,,,, abia itzazu behar diren aurretiazko prestaketak!

(Lehenago kapitainak etengailua amatatzean egindako soinu bera entzuten dugu)

*(Lotinantak halako **kapa** ipintzen dio kapitainari, zuria baita ere. Bi mauka luze ditu, zoroenen antzera **gorputza hertsatzeko** balio dutenak)*

ORORO

Goiurerekiko konexioa prest dago.

KAPITAINA *(Publikoari zuzentzen)*

Hemen irazu Kapitain-pilotu argizaginata, Pitxu XIV ontzitik, espazioaren luze-zabalaren erdian, Goiuriko base orokorrarekin hitz egin nahian.

(Interferentziak entzuten da)

Mezu garrantzitsu bat dut Euskal Herriarentzat.

MEGAFONIA

Bai, hemen Goiuri erizaina, Pitxu XIV ontziko eskifaiari deika.

5etako pilula hartu duzue?

(Kapitaina eta lotinanta gora begira gelditzen dira harrিতuta)

Nola esan behar zaizue txintxo portatzen ez bazarete ez zaretela jardinerara aterako?

Tira, hartzazue zorioneko pilula eta eskafandra jantzita paseo-espaziala egiten utziko dizuet!

(Kapitaina eta lotinanta elkarri begiratzen eta publikoari,)

KAPITAINA eta LOTINANTA

Jaungoikoa existitzen da eta euskalduna da!

Musika extralurtarra, entzuten da. Nino, nino, nino nino